

Atzerriko hizkuntza baten ikaskuntzan eragiten duten faktoreak

Lehen Hezkuntzako gradua
GRADU AMAIERAKO LANA
2020- 2021 IKASTURTEA

Ikaslea: Aitor Learreta Orive
Tutorea: Luis Pastor Santamaría

Laburpena

Gaur egungo mundua gero eta globalizatuagoa dago eta horren ondorioz, hizkuntzek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, izan ere, hizkuntzak menperatzeak ate asko irekitzen ditu. Hori dela eta, hizkuntzek hezkuntzan gero eta presentzia handiago dute eta gero eta garrantzi handiago ematen zaie. Gure kasuan, euskarak hainbat estadiotik igaro da eta horren ondorioz, hezkuntzan hainbat erreforma egin ohi dira historian zehar. Gaur egungo hezkuntza ereduan, hiru aurki ditzakegu, A,B eta D ereduak, izan ere, euskal gizartea gero eta kulturazituagoa da. Hori dela eta, gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da jakitea zeintzuk diren hizkuntza bat ikasteen eragiten duten faktoreak. Hauen artean,alde batetik, pertsonaren ezaugarri pertsonalak aurki ditzakegu, adina, nortasunaren ezaugarriak, ezaugarri afektiboak eta faktore kognitiboak izango lirateke. Bestetik, pertsonaren testuingurua aurki ditzakegu, testuinguru ekonomikoa, soziokulturala eta soziolinguistikoa izango liratekeenak.

Hau esanda, Gradu Amaierako lan honen helburuetako bat, esku hartze bat proposatzea izango da. Horretarako, Luis Dorao ikastetxeko eredu hartuko da, izan ere, ikastetxe honetara etorkin dezente joaten dira ikasturtea hasita eta ikastetxean dagoen aniztasuna, orokorrean, nahiko handia da. Beraz, esku hartzearekin lortu nahi dudana da ikasle berriak hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izatea eta egokitzen zaion taldean ondo integratzea.

Resumen

El mundo actual está cada vez más globalizado, lo que ha hecho que las lenguas cobren cada vez más importancia, ya que el dominio de las lenguas abre muchas puertas. Por ello, las lenguas tienen cada vez más presencia en la educación y cada vez se les da más importancia. En nuestro caso, el euskera ha pasado por varios estadios y como consecuencia de ello, se han hecho varias reformas en la educación a lo largo de la historia. En el modelo educativo actual, podemos encontrar tres, los modelos A, B y D, ya que la sociedad vasca es cada vez más multicultural. Por ello, cada vez se está haciendo más importante saber cuáles son los factores que influyen en el aprendizaje de una lengua. Entre ellas, por un lado, podemos encontrar las características personales de la persona: la edad, los rasgos de personalidad, los rasgos afectivos y los factores cognitivos. Por otro lado, podemos encontrar el contexto de la persona, que serían el contexto económico, sociocultural y sociolingüístico.

Dicho esto, uno de los objetivos de este trabajo de Fin de Grado será proponer una intervención. Para ello, se adoptará el modelo del colegio Luis Dorao, ya que a este centro

acuden bastantes inmigrantes comenzando el curso y la diversidad existente en el centro, en general, es bastante grande. Por lo tanto, lo que pretendo con la intervención es que el nuevo alumno tenga un primer contacto con la nueva lengua y se integre bien en el grupo al que se adapte.

Hitz gakoak: *Hizkuntza, Hezkuntza, Faktoreak, Testuingurua*

Justifikazioa

Gai hau oso erakargarria iruditu zait betidanik, izan ere, interes handia izan dut hizkuntzetan. Hala ere, hau ez zen faktore erabakigarria izan gaiaren aukeraketan. 3. mailan Errekabarri ikastetxean egin nituen praktikak eta hauek burutzen ari nintzen bitartean, egun batetik bestera nire irakasleari ikasle berri bat etorriko zela esan zioten, Kolonbiatik hain zuzen ere. Honek impaktu zuzena izan zuen bai ikasleengan bai irakaslearengan, izan ere, ikasleek lagun berri bat izango zuten eta irakasleak ikasle berri bat, hizkuntza menperatzen ez zuena. Gauzak horrela, ikaslea ikastetxera iritsi zenean, irakasleak aurretik planifikatutakoa aldatu behar izan zuen eta hainbat jarduera egin behar izan zituen ikasle berria modu egoki batean gelan integratzeko eta hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izateko. Beraz, egoera hau hausnartzera sustatu ninduen zeren nire bizitzan ez nuen horrelako egoerarik bizi eta honek dezente harritu ninduen zeren egoeraren zailtasunaz ohartarazi nintzen. Horren ondorioz, nire lanerako gai hau aukeratzea erabaki nuen, etorkizunean gerta daitekeen egoera bat delako eta honen inguruan ezagutzak izatea lagungarria izan daitekeelako.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	7
2. MARKO TEORIKOA.....	7
2.1. Hizkuntzen garrantzia.....	7
2.2. Hizkuntza ikastetxeetan eta euskara.....	8
2.3. Hizkuntza baten ikaskuntzan eragiten duten faktoreak.....	9
2.3.1. Adina.....	10
2.3.2. Nortasunaren ezaugarriak.....	11
2.3.3. Ezaugarri afektiboak.....	12
2.3.3.1. Jarrera.....	12
2.3.3.2. Motibazioa.....	13
2.3.4. Faktore kognitiboak.....	14
2.3.5. Testuingurua.....	14
2.3.5.1. Testuinguru sozioekonomikoa.....	14
2.3.5.2. Testuinguru soziokulturala.....	15
2.3.5.3. Testuinguru soziolinguistikoa.....	16
3. ESKU HARTZEAREN PROPOSAMENA.....	16
3.1. Testuingurua.....	16
3.2. Esku hartzearen helburuak.....	17
3.3. Konpetentziak eta helburu didaktikoak.....	17
3.4. Edukiak.....	18
3.5. Irizpide metodologikoa.....	18
3.6. Jarduerak.....	19
3.7. Ebaluazioa.....	24
3.8. Emaitzak.....	25
4. ONDORIOAK.....	26
5. BIBLIOGRAFIA.....	28

ERANSKINAK

1. SARRERA

Immigrazioaren fenomenoa gaur egungo gizartean presente dagoen fenomeno da eta horren ondorioz hainbat esparrutan bizi dugun aniztasuna nabarmena da. Horietako esparru bat eskola da, non ikastetxe publikoetan gero eta kultur eta hizkuntz aniztasuna gero eta handiago den. Honek eragiten duena da, gero eta hizkuntza eta kultura desberdina duten gero eta ikasle gehiago egotea ikastetxeetan eta, beraz, ikasle hauek gure gizartean modu egoki batean integra daitezen, hemengo hizkuntza ikasi behar dute. Hizkuntza bat ikasterakoan, hainbat faktoreek nabarmen eragiten dute, hizkuntzaren ikaskuntza hori erraztuko edo zailduko dutenak. Hori kontuan izanda, Gradu Amaierako Lan honetan atzerritar ikasleek bigarren hizkuntza bat ikasteko unitate didaktiko bat proposatuko dut, non bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan eragina duten faktoreak kontuan izango ditudan.

Lan hau horrela antolatuta dago. Lehenengo atalean, hizkuntzen garrantzia azpimarratuko eta hauen irakaskuntza prozesua herrialde garatu askotan azalduko dut bereziki euskararen irakaskuntza bigarren hizkuntza gisa. Horretaz gain, marko teorikoarekin bukatzeko, hizkuntza baten ikaskuntzan eragiten duten faktoreak aurkeztu eta azalduko ditut: alde batetik, ikasle bakoitzak dituen ezaugarri pertsonalak azalduko ditut (hala nola, adina, nortasunaren ezaugarriak, ezaugarri afektiboak eta ezaugarri kognitiboak); eta bestetik, testuingurua garrantzia (testuinguru sozioekonomikoa, soziokulturalean eta soziolinguistikoa, besteak beste). Bigarren atalean, hainbat jardura zehatz batzuek osatuko unitate didaktiko bat aurkeztuko dut. Lanarekin bukatzeko, ondorioak eta aurrera begirakoak aurkeztuko ditut.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Hizkuntzen garrantzia

Mundu global honetan, non distantziak gero eta laburragoak diren, herrialdeen arteko hesiak desitxuratu egiten dira eta mundu osora iritsi daiteke begiak ireki eta itxiz edo, are hobeto, klik batekin. Mundu global honetan eraginkortasunez moldatzeko, gutxienez bi hizkuntza erabili behar dira. Gainera, hizkuntza bat ezagutzeak beste kultura batzuk ezagutzea errazten du. Hizkuntza produktu sozial eta kulturala da, eta, beraz, beste hizkuntza bat ikastea beste sentsibilitate batzuetara, beste errealitate batzuetara, mundua hautemateko, deskribatzeko eta pentsatzeko beste modu batzuetara iristeko modu bat da (D'Andrea, Garré eta Rodríguez, 2012).

Hizkuntzak hitz egiteak ate asko irekitzen ditu, baina, zalantzarik gabeko abantaila komunikatiboez gain, hizkuntzak maiz erabiltzeak mesede egiten dio gure garunari ere. Hainbat teknika erabiliz (elektroentzefalograma edo neuroirudia, adibidez), azken urteotan

erakutsi da alderdi linguistikoetatik haratago doazen beste hainbat ariketen alde egiten dutela elebidunek (Morales, 2013).

Elebitasuna terminoaren esanahia argi dago: bi hizkuntzen ezagutzari eta erabilerari egiten dio erreferentzia. Pertsona batzuek bi hizkuntza eskuratzen dituzte jaiotzen direnetik (aldibereko elebidunak); beste batzuek geroago ikasten dute (elkarren segidako elebidunak), irakaspen formalaren bidez (eskolak), murgiltze linguistikoaren bidez (immigrazioa edo atzerriko ikasketak, besteak beste) edo beste egoera batzuen bidez (Alarcón, 2002).

Gainera elebitasunak onurak izaten ditu hiztunetan. Adibidez, elebidunek elebakarrek baino erraztasun handiagoz ikasten dituzte hitz berriak euren hizkuntzetan (Kaushanskaya eta Marian, 2009). Hori gutxi balitz, atzerriko hizkuntza bat ikastean, elebakarrengan baino burmuin-sareen erabilera efizienteagoa aurkitu da elebidunengan (Bradley, King eta Hernandez, 2013). Ez da harrizkoa, beraz, elebidunak elebakarrak baino hobek izatea hizkuntza berri bat ikastean (Lapkin, Rowen eta Hart, 1990; Cenoz eta Valencia, 1994; Swain; Sanz, 2000). Honetaz gain, , badirudi elebidunek besteen iritzi, uste eta ikuspegiaren ulermen hobea dutela.

2.2. Hizkuntza ikastetxeetan eta euskara

Herrialde garatu askotan, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza, biztanleriaren garapenaren alderdi estrategiko gisa ulertzen da, hezkuntza-arloko estatu-politikek sustatuta, hainbat programen bidez. Gainera, 2001. urtea Hizkuntzen Europako Urtea izendatu zuten, honako lelo hauekin: "Europa eleaniztuna da eta izango da beti", "Hizkuntzak ikasteak aukerak eskaintzen ditu" eta "mundu guztiak ikas ditzake hizkuntzak" (Banfi, 2009).

Honen harira, aipatzekoa da Hizkuntzen Europako Eguna. Hizkuntzen Europako Eguna urtero irailaren 26an egiten den ekimena da, eta hainbat hizkuntza-erakundek, elkartek, unibertsitatek eta, bereziki, ikastetxek parte hartzen dute. 2001etik ospatzen ari den jardunaldi hau aukera paregabea da hizkuntzen ikaskuntzari eta hizkuntza-aniztasunari buruzko kontzientzia sortzeko. Europako Batzordearen eta Europako Kontseiluaren eskutik sortutako Hizkuntzen Europako Egunak Europako ia 800 milioi herritar ordezkutzen ditu, eta honako hauei buruzko sentsibilizazio publikoa bilatzen du:Europako hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna zaindu eta indartzea, eleaniztasuna sustatzea eta bi hizkuntza edo gehiago menderatzeko premia gero eta handiagoa, Europako herritartasun demokratikoan parte hartze aktiboa izateko (SEPIE, 2020).

Testuingurura egokitzeko asmoz, euskara munduko hizkuntzarik zaharrenetarikoa da, ahozko hizkuntza izan arren (literatura idatzirik gabe XVI. mendera arte). Hala ere, Euskadin ez zen euskararen erabilera hainbat esparrutan arautu 1982. urtera arte, Euskararen Normalizazio Legea onartu zenean. Hori dela eta, euskararen erabilera hainbat esparrutan arautu zuen: administrazioan, hezkuntzan, justizian, hedabideetan, etab.

Egoera berri horrek hainbat ondorio izan zituen hezkuntzak: bereziki, Euskadiko hezkuntza sistema elebiduna izatea. Une horretatik aurrera, hizkuntza-desplazamenduaren inbertsioa (reversing language shift) hurrengo urteetako hizkuntza-politikaren ardatz nagusi bihurtu zen. Hizkuntza-desplazamendua komunitate batek hizkuntza bat hitz egitetik beste hizkuntza bat hitz egitera igarotzeko prozesua da. Prozesu hori, oro har, hainbat belaunalditan zehar gertatzen da (Fernández, 2003). Hizkuntza-desplazamenduaren alderantzikatzearen helburua ez da soilik hizkuntzaren jabeak goiztiarra sustatzea, lehen edo bigarren hizkuntzaren aldaerak modu arinean menderatzea eta eskolan erabilera arrunta izatea, baizik eta gero eta handiagoa izatea ere bai (Fishman, 1990).

Gaur egun Euskadin hiru hezkuntza eredu aurki ditzakegu, A, B eta D ereduak. A eremuan gaztelaniaz lantzen da dena Euskal Hizkuntza ikasgaia izan ezik, B eremuan ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz lantzen dira eta D eremuan euskaraz lantzen da dena Gaztelania ikasgaia izan ezik (EHAA, 1983).

Egungo euskal gizartea gero eta kulturantzunagoa da, Espainiaz kanpotik etorritako gero eta ikasle gehiago baititugu eskoletan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arabera, 2018an, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako ikasleen % 22,8 atzerritarra zen, eta itunpeko sarean, berriz, ikasleen % 9,6. Beraz, euskal eskoletan kultura eta hizkuntzen ezagutza eta eskolatze maila asko adierazten dituzten ikasleak ditugu eta ondorioz ugaritzen ari zaigu, egunez egun, aurrez jada bagenuen aniztasuna (Intxausti, 2010).

Joera horiek ikastetxeetan aniztasuna dagoela islatzen dituzte. Ez gara kultura- edo hizkuntza-aniztasunaz soilik ari, baizik eta hizkuntzekiko, haien ikaskuntzekiko eta hiztunekiko, komunikazio-gaitasunaren mailen aniztasunaz eskolako hizkuntzan eta beste hizkuntza batzuetan, eskolatze-esperientzien aniztasunaz edo arrakasta-porrot itxaropen sozialen aniztasunaz (Trujillo, 2007).

2.3. Hizkuntza baten ikaskuntzan eragiten duten faktoreak

Ama hizkuntza ez den beste hizkuntza batzuk ezagutzea eta horiekin batera haien kultura ezagutzea XXI. mendean beharrezkoa den trebetasuna da; izan ere, beharrezkoa izango da

gure bizitzako hainbat arlotan harremanak ditugun nazionalitate anitzeko pertsonekin gizarte global batean bizitzeko. Horregatik, atzerriko hizkuntzak irakastea ezinbestekoa da gaur egungo gizarteko pertsona baten nortasun kulturala osatzeko. Hala ere, ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikastea prozesu zaila da; faktore askok parte hartzen baitute prozesu horretan, eta horien arabera izango da emaitza arrakastatsua izatea (Álvarez, 2010). Faktore horien artean, garrantzitsuenak adina, nortasunaren ezaugarriak, ezaugarri afektiboak, ezaugarri kognitiboak eta testuingurua dira.

2.3.1. Adina

Gaur egun, haurrek hizkuntzak helduek baino errazago eta hobeto ikasteko duten ustezko gaitasuna oso zabaldua dagoen ustea da. Thompson-ek (2016), UCLako neurologia irakasleak eta bere taldeak, erakutsi dute hizkuntza berriak ikasten laguntzen diguten garun-sistemak azkar hazten direla, 6 urte ditugunetik pubertaroraino, eta ondoren sistema horiek 11 eta 15 urte bitartean itzali eta hazteari uzten diote. Horrela izanda, adibidez, Katalunian zortzi urte bete baino lehen ingelesa ikasten hasi ziren ikasleen gurasoekin egindako ikerketa batean ikusi zen gurasoen % 92k uste zuela haurrek bigarren hizkuntzak ikasteari begira abantailak dituztela adinekoekin alderatuta (Torras, Tragant eta García, 1997). Euskal Herrian ere ikusi da gurasoek, irakasleek eta tutoreek ingelesa ikasteak ondorio positiboak izan ditzakeela uste dutela, ez bakarrik euskara eta gaztelania ikastea, baita ikasleen garapen kognitiboan eta beste irakasgai batzuetan duten errendimenduan ere (Cenoz, 2003).

Psikolinguistikako lanetan erakutsi den bezala, haurren garuna oso moldagarria da eta horri esker, haurrak gai dira ikaskuntza berriak ikasteko. Izan ere, haurren bizitzako lehen urteetan garunak bere neuronen arteko lotura ezberdinak egituratzen baititu (Laka, 2012). Prozesu goiztiar honetan haurrak ikaskuntza berriak hasten baditu, haurrak bi eratarik jasoko dituzte onurak: alde batetik, burmuinak konexio neuronalak handitzen jarraituko ditu; eta bestetik, azkarrago eta errazago ikasi ahal izango du. Horrela, 3 eta 12 urte bitartean atzerriko hizkuntza ikasten hasteko adinik onena iradoki daiteke (Manga, 2008).

Hori dela eta, ikasleek 3 eta 4 urte dituztenean atzerriko hizkuntza bat irakasten hastea oso lagungarria izan daiteke. Bat-batekotasuna, ezagutza eskuratzea hain modu naturalean, eta garatzeko prest duten ahalmenegatik, irakatsi eta ikasteko prozesua benetan atsegina eta onuragarria da. Eskolaurreko haurrek bizitzako lehen urteetatik bigarren hizkuntza bat eskuratzeak, ezagutza sendoa izatea eta ikaskuntza berrietarako oinarriak ezartzea eragiten ditu (Medina, Melo eta Palacios, 2013). Izan ere, urte horietan haurrak, haurtzaro

goiztiarraren etapan daude (3-7 urte bitartean), non pentsamendu-, hizkuntza- eta oroimen-gaitasunean aurrerapen handiak izaten dituzten. Gainera, etapa horretan informazioa prozesatzeko gaitasun handiagoa dute, garuneko lobuluen artean ezartzen diren konexioen ondorioz (Campo, 2009).

2.3.2. Nortasunaren ezaugarriak

Hizkuntza baten egokitzapena ahalbidetzen duen beste faktore bat ikaslearen nortasun mota da. Nortasunean eragina duten faktore garrantzitsuenetako batzuk azaltzen saiatzeko, autore batzuk hainbat dikotomiatan oinarritu dira, besteak beste, ikasle kanporakoiak eta barnerakoiak (Rubio, 2011).

Nortasun barnerakoa erabakigarria izan daiteke bigarren hizkuntza eskuratzeko, ikasle barnerakoi hauetan, "iragazki afektiboa" baitute (Krashen, 1941). Ikasgelan, ikasle guztiak modu desberdinean ikasten dute, desberdintasun argiekin, bakoitzaren nortasunaren arabera. Kanporakoiek, adibidez, ikasitakoa errepikatzen edo kontatzen dute. Barnerakoien kasuan, informazioa pilatzen dute, baina ez dute hari buruz hitz egiten. Batzuetan, ikasgelan, kanporakoiak diren pertsonak kalifikazio altuak lortu ohi dituzten ikasleekin erlazionatzen dira (Hedges, 2004). Gainera, ikasle kanporakoiak, normalean, hobeak dira atzerriko hizkuntzan ahoz komunikatzeko unean; izan ere, beste pertsona batzuekin elkarreragiteko nahiak solaskide on eta arin bihurtzen ditu. Hala ere, ikasle barnerakoiak ikasle onenak direla esaten da, kontzentrazio hobea duteko, lexikoa eta sintaxia behar bezala ezartzeko (Dörnyei, 2005; Vandelee, 2005). Nortasunaren eta ikasitakoaren arteko erlazio horregatik hartzen da nortasun mota azterlanaren parte gisa, atzerriko hizkuntza bat ikasteko unean garrantzitsua delako ikaslearen nortasuna.

Honen harira, ikaslearen autoestimua ere, ikaskuntzan eragin zuzena du. Faktore erabakigarria eta frogatuta dago, esate baterako, Peruko laugarren eta bosgarren mailako Lehen Hezkuntzako ikasleei egindako azterlanean, ondorioztatzen da autoestimu-mailak zuzenean eragiten diola ikaskuntzari. Badirudi autoestimu faltak, gure portaera negatibo askoren oinarrian dagoenak, eragin zuzena duela adin guztietako ikasle askok bigarren hizkuntza bat ikasteko "gaitasun faltari" buruz duten sentimenduan. Baina nondik dator konplexu hau? Litekeena da hizkuntzen ikaskuntza akademikoak - esperientzia txarrak, oso ariketa lehiakorak, eta abar- horrekin zerikusi handia izan izana (Vallejo, 2014).

Segurtasunik gabe sentitzen diren edo autoestimu baxua duten haurrek ez dute ikasgelan arreta osoa jartzen (Williamsenen eta Burden, 1999). Gainera, autoestimua eragina du,

ikasleak bere gain hartzen duen erantzukizun-mailan, sormen-gaitasunean, autonomia pertsonalean eta harreman sozial egokiak ezartzeko gaitasunean (Alcantara, 2001). Beraz, ikasleak autoestimuzko defizita badu, alderdi horiek guztiek ere gabeziak izango dituzte.

2.3.3. Ezaugarri afektiboak

Eremu afektiboak hainbat faktore biltzen ditu: empatia, inhibizioa, imitazioa, antsietatea, jarrerak, besteak beste. Hizkuntzarekiko jarrerak bereziki garrantzitsuak dira; izan ere, zenbat eta interes handiagoa izan ikasleak hizkuntzan eta haren kulturaren orduan eta errazagoa izango da hura ikastea. Jarrera oso lotuta dago motibazioarekin (Santana, 2016). Ezaugarri afektiboaren artean, jarrera eta motibazioa aurki ditzakegu.

2.3.3.1. Jarrera

Jarrera positiboarekin, ikasleak ikasgelan ikasteko estrategiak erabiltzea gertagarriagoa da eta hizkuntza banaka ikasteko probabilitate handiagoa dago. Jarrera positiboarekin, gainera, litekeena da ikasleak gehiago ikastea eta, gainera, iragazki emozional bat izatea, ikasleak informazio berri gehiago jasotzen uzten duena (Krashen 1988). Jarrera positiboak, jakina, lagundu egiten die ikasleei beren ikaskuntzan; beraz, faktore garrantzitsua da ikertzeko, eta garrantzia emango die gure azterlanaren emaitzei.

Hizkuntza bat ikastea ez da soilik hizkuntza bat entzutea eta ulertzea, baita hizkuntzari eta haren hiztunei irekita egotea ere. Beste nazionalitate batzuekiko eta beste talde etniko batzuekiko jarrerak ere garrantzia du, etnozentrismo ondo garatu batek beste pertsona batzuk ulertzeko eta haien egoeran jartzeko gaitasuna murrizten duen bezala (Brown 1993).

Haurrak eskolan hasten direnean, familiarengandik eta gizartetik ekartzen dituzten zenbait jarrera dituzte. Irakasleek ikasleen jarrerak identifika ditzakete eta ikasleek ikasten ari diren hizkuntzan duten gaitasunean eta trebetasunean arrakastatsuenak izateko erabil ditzakete (Holfve-Sabel, 2006). Irakasleak jakin behar du haurrek dituzten jarrerak eragina dutela haien ikaskuntzan eta ikasleen esperientziatik erakartzen duen irakasleak jarrerak alda ditzakeela (Brown, 1993).

Jarrera bere horretan neur daiteke gizabanako bati objektu bat ebaluatzeko galdera batzuk erantzuteko eskatuz; izan ere gizabanako baten jarrera objektuen batekiko ebaluazio-erreakzioa baita, gizabanakoak erreferenteari buruz duen sinesmenaren edo iritzien oinarritik abiatuta (Spolsky, 1989). Hau da, subjektu batek objektu bati buruzko

galdera-kopuru bati ematen dion erantzunaren bidez eraikitzen da jarrera. Ikaslearen jarrerak motibazioa garatzeko modua ematen du; izan ere, hizkuntza baten hiztunekiko, kulturarekiko eta herrialdearekiko jarrera mesedegarriak integrazio hobea eta ikastetxearekiko, ikasten duen hizkuntzaren irakasgaiarekiko eta irakasten duen irakaslearekiko jarrera mesedegaria ahalbidetzen dio, eta hori guztia motibazio positibora eramaten du (Carmona, 2011).

2.3.3.2. Motibazioa

Argi dago motibazioa faktore erabakigarria dela errendimenduan eta ikaskuntzaren emaitzetan duen eragin zuzenari buruz hitz egiten denean, bigarren hizkuntzen eskuratzeari buruzko azterlanean ez baitago inolako zalantzarik (Mena, 2013). Arazoak daude termino honetarako definizio bat ezartzeko unean. Oro har, adierazi da pertsonak interes eta behar jakin batzuek mugitzen edo gobernatzen dituztela, eta horiek eragina dutela pertsonak jarduteko moduan. Hala ere, arazoa da eragin horren mailaren neurketa banakoen ekintzetatik baino ezin dela ikusi. Horregatik, zaila da kategoria horiek aztertzea eskuratze-prozesuan (Milena eta Ramos, 2009).

Gardnerrek (1985) uste du motibazioa bi motatakoa izan daitekeela: integratiboa eta instrumentala. Gardnerrek motibazio integratibo gisa ulertzen du kultura berriarekin sintonizatzeko hizkuntza bat ikasteko interesa: adibidez, ingurune berri batean komunikatzeko hizkuntza bat ikastea, norberaren interesagatik. Motibazio instrumentala dela eta, Gardnerrek adierazi nahi du ikasleak zergatik ikasten duen hizkuntza berri bat: adibidez, lana dela-eta hizkuntza bat ikastea. Bi orientazio-mota horiek (integratiboa eta instrumentala) eraginkorrak dira, biek ahalbidetzen baitiote ikasleari bere helburuak ezartzen hizkuntza ikasteko. Hala ere, bi motibazio mota horiek nortasun-faktoreen eraginpean daude, hala nola onarpena, antsietatea, urduritasuna, konfiantza, eta abar.

Ikaslearen motibazioa lortzeko, garrantzitsua da hizkuntza-irakasleak bete ditzala garatu beharreko funtzioak, norengandik espero den eraginkortasuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, ikasleen interesari eustea, ikasleen frustrazioa eta porrota saihestea, jarrera positiboak garatzea, ikasgelan giro ona sortzea, ikaslearen eta irakasgaiaren edukien artean bitartekotza egitea, arlo zientifikoan eta pedagogikoan eguneratuta egotea, etab. Irakaslearen zenbait jarrerak, irakasteko estiloak, nortasunak eta motibazio-mailak eragin zuzena izango dute ikaslearen motibazioan (Rodríguez, 2012).

2.3.4. Faktore kognitiboak

Faktore ugari esku hartzen dute atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzan eta horien artean faktore kognitiboak aurkitzen dira. Ikuspegi kognitiboak hezitzaileei laguntzen die ulertzen atzerriko hizkuntza bateko ikasleak informazio-prozesadore aktiboak direla. Ikasleek informazioa behar dute arazoak konpontzeko, dakitena berrantolatzeko eta, horrela, ezagutza berriak lortzeko modu aktiboan, beren helburuak lortu bitartean. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea ikasleek oso modu desberdinetan ikasten dutela, askotariko estrategiak eta ikasteko estiloak erabiltzen dituztelako. Horregatik, beharrezkoa da ulertzea gizabanakoak atzerriko hizkuntza eskuratzeko erabiltzen dituen prozesu kognitibo orokorrak (Murillo, 2020).

Martosen (2006) arabera, bi hizkuntza-gaitasun daude, atzerriko hizkuntza bat eskuratzeko lotura dutenak: lehena, pertsonen arteko oinarrizko komunikazioa, gizabanakoek eguneroko bizitzan komunikatzeko erabiltzen dituzten hizkuntza-funtzio guztiak biltzen dituena; eta bigarrena, hizkuntza akademiko kognitiboari buruzkoa, eskolako lanak arrakastaz egiteko behar den hizkuntza baita. Zeregin horiek abstraktuagoak dira eta, oro har, testuingurutik kanpo daude. Testuinguru txikiko komunikazioa ere esaten zaio.

2.3.5. Testuingurua

Hizkuntza bat eskuratzek hura indartu edo ahulduko duten hainbat faktoreren eragina du. Alderdi horien artean, testuinguru soziala aipa daiteke, testuinguru sozioekonomikoa, testuinguru soziokulturala eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartzen dituena (López, Quesada eta Salas, 2021). Williams eta Burdenen (1997) arabera (apud Pishghadam, 2011), testuinguruak hizkuntza baten ikaskuntzan duen eragina nabarmena da; izan ere, ikaskuntza-giroak ikasteko gaitasuna emango lieke gizabanakoei, nola ikasteko eta erabat integratutako ikastun gisa garatzeko.

2.3.5.1. Testuinguru sozioekonomikoa

Baliabide sozioekonomikoak familia jakin bat eroso bizi dadin eta oinarrizko behar guztiak ase ditzan garatzen diren baldintza material eta sozialen multzoa da, horren bidez haien bizi-maila zehaztuko baita (Vallejo, 2010).

Ikastunek Internet, ordenagailuak, irudiak, pinturak, liburuak eta hiztegiak bezalako kultura-ondasunak eskuratzek eragin handia izan dezake gizabanako batek hizkuntza bat ikasteko edo ez ikasteko duen moduan. Ondasun kultural handiagoak dituzten eta lagun

eta erakundeen sare sozial gehiagotara sarbidea duten ikastunek arrakasta akademiko handiagoa izateko bermea izan dezaketela (Pishghdam, 2011). Estatus sozioekonomiko altuena duten ikasleek lorpen akademiko handiagoak dituzte eta unibertsitate prestigiotsuetan matrikulatzen dira diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonen baino. Soldata onak dituzten pertsonen hezkuntza-gastuak ordain ditzakete beren buruarentzat eta beren seme-alabentzat (Choi, 2018). Beraz, klase sozialak, etxebizitzak eta baliabideak eskuratzeak eragin handia dute lorpen akademikoetan (Arikan, 2011).

2.3.5.2. Testuinguru soziokulturala

Maila soziokultural terminoa gaur egun gure gizartean egunero erabiltzen den zerbait bihurtu da. Oro har, komunitate batean dauden kultura- eta gizarte-alderdiak sartzen ditu, eta, beraz, norbanakoarengan berarengan gehiago barneratzera gonbidatzen gaitu, baita duen ezagutza-mailan ere (Contreras, Estrada, Parra eta Venegas, 2013).

Gizarte-mailaren eta hizkuntzen ikaskuntzaren emaitzen arteko harremanak aztertu dira, bai bertako hizkuntzari dagokionez, bai bertakoak ez diren hizkuntzei dagokienez. Oro har, azterlan horien emaitzek iradokitzen dute maila sozial ertaineko eta maila kultural altuko ikasleek emaitza hobek lortzen dituztela bigarren hizkuntza batean klase sozial baxuagoetatik datozen ikasleek baino (Burstall, 1975; Skehan, 1990; Cenoz, 1992; Lasagabaster, 1997). Desberdintasun horren azalpena, Ellisek (1994) defendatzen duen bezala, klase sozial ertaineko haurrek testuingurutik kanpoko hizkuntza erabiltzeko duten gaitasun handiagoa izan daiteke, ikaskuntza formalaren alde egiten duten testuinguruetan hauteman baita bereziki (Olshtain, Shohamy, Kemp eta Chatow, 1990); aitzitik, ez da desberdintasunik aurkitu komunikazio-trebetasunak garatzen laguntzen duten testuinguruetan. Adibidez, Casassusek (2003) egindako azterlan batean erakusten du desberdintasun soziokulturek desberdintasunak dakartzatela ikaskuntza-prozesu baten ondoren lortutako emaitzei dagokienez; era berean, hezkuntza-establezimenduen zati baten joera bat ere ezartzen da, establezimendu horietan parte hartzen duten gizarte-taldeek homogeneousazioa sustatzen duena, hau da, maila soziokultural baxuko edo ertain-baxuko herriez inguratutako ikastetxeetan normala da bertako ikasleek maila horretakoak izatea. Establezimenduaren maila soziokulturalaren kategorizazioa, ikasten duten ikasleen arabera (Casassus, 2003).

2.3.5.3. Testuinguru soziolinguistikoa

Atzerriko hizkuntzen ikaskuntzaren testuingurua oso zabala eta konplexua da; ikasiko den hizkuntza osatzen duten elementuak pragmatikoki hartzeaz gain, ezinbestekoa da hizkuntza-jarduera garatzen den gizarte-testuingurua kontuan hartzea. Atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzan eta jabekuntzan elementu multzo bat sartzen da jokoan, eta elementu horien artean sartzen dira, noski, ama-hizkuntza eskuratuta jada garatu direnak, hala nola pentsamendu logikoa eraikitzea, irudimena eta sormena garatzea; ikaskuntza horrek pentsamendua berregituratzen laguntzen du eta hizkuntza berriaren ingurune soziokulturalarekin komunikazio-loturak sortzen laguntzen du (Ussa, 2010).

Zalantzarik gabe, ama-hizkuntza oso garrantzitsua da bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan, prozesu horretan interferentzia positiboa zein negatiboa izan dezakeelako. Bestela esanda, bi hizkuntzek antzeko ezaugarriak dituztenean, hizkuntza berriaren ikaskuntza-prozesua askoz errazagoa eta eramangarriagoa izan daiteke ikaslearentzat, ezagutzen duen edo, gutxienez, ezaguna zaion unibertso bat aurkezten baitzaio (López, Quesada eta Salas, 2021).

Aitzitik, hizkuntza-eredu desberdinak dituzten hizkuntzak direnean, ama-hizkuntzak eragin negatiboa du; izan ere, ikaskuntza zailtzen du, ikastunak lotura faltsuak egin ohi dituelako, alderdi jakin batzuetan oso desberdin funtzionatzen duten bi hizkuntza direlako. Beraz, bigarren hizkuntza bateko irakasleak gida-rola du ikaskuntza-bide arrakastatsuan, ama-hizkuntzaren interferentzia negatiboa minimizatzeko; izan ere, ikasle bakoitzak bere ama-hizkuntzaren ondorio positiboak hartzen jakingo du, eta modu negatiboan ulertzen dutenak baztertu egingo ditu (Brown, 2001).

3. ESKU HARTZEAREN PROPOSAMENA

3.1. Testuingurua

Proposatzen diren jarduerak Gasteizko Luis Dorao ikastetxean aurrera eramateko pentsatuta daude. Ikastetxea sare publikokoa da eta San Viator kalean kokatuta dago. Luis Dorao ikastetxeak 1973-1974. ikasturtean atea ireki zituen. Eskola publiko hau hasieratik ez zen D ereduan oinarrituta egon baina orain D ereduan soilik oinarritzen da. Hori dela eta, 2. urteko gelatik aurrera eskolan irakasten den hizkuntza euskara da. Ingelesa eta gaztelania beranduago lantzen dira, hain zuzen ere 4. urteko gelatik aurrera ingelesa eta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrera gaztelania.

Ikastetxe honen ezaugarri nagusia ikasleen artean dagoen aniztasuna da, gehienbat, hizkuntzaren eta kulturaren aldetik. Horren ondorioz, Lehen Hezkuntzan zehar irakasleek ikasleekin ahozko ulermen eta adierazpena, irakur-idazketa, kalkulua eta kultura orokorreko oinarrizko ezagutzak lantzen dituzte. Helburu orokorra, aipatutakoaz gain, ikasleei ikasteko beharrezko estrategiak eta etorkizunerako beharrezko ohitura eta baloreak ematea da. Horrekin guztiarekin prestakuntza integrala bermatu nahi dute, ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duena.

Ikastetxe honetara, normalean, ikasle etorkin dezente iristen dira ikasturtea hasita eta horren ondorioz, irakasleek aurretik planteatutakoa moldatu behar dute ikasle berria taldean integratzen dadin eta hizkuntza ikasten has dadin, izan ere, askotan, ikasle berri horiek ez dute hizkuntza menperatzen. Hori dela eta, hurrengo atalean, 4 jarduera proposatuko dira eta hauen inguruko hezurdura azalduko dut, ikasle berriak hizkuntza ikas dezaten eta taldean integratzen dadin.

3.2. Esku hartzearen helburuak

Proposamen didaktiko hauen helburu nagusiak eskolara iristen den ikasle berriak hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izatea, komunikazioa sustatzea, taldearen parte sentitzea eta beste ikasleekin elkarlanean aritzea izango dira.

Honetaz gain, ikasleen artean dagoen aniztasuna aprobetxatuko da eta horrela, kultur eta hizkuntza aniztasuna landuko da, ikasleek bere nortasuna ezagutu eta onar dezaten eta gainerakoena ere ezagutu eta errespetatu dezaten.

3.3. Konpetentziak eta helburu didaktikoak

Esku hartzearekin ikasleek hurrengo konpetentziak landuko dituzte. Disziplina barneko konpetentzietan dagokionez, hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia nagusituko da eta horretatik 5. osagaia landuko da, hau da, gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.

Oinarrizko zehar konpetentzietan dagokionez, berriz, ikasleek elkarbizitzarako konpetentzia landuko dute eta horretatik, 2. osagaia nabarmenduko da, taldean ikastea eta lan egitea, nor bere ardurak onartuz eta helburu komunean lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta (*Heziberri 2020*, Eusko Jaurlaritza, 2014).

Bestalde, helburu didaktikoei dagokionez, 4 betetzen saiatuko naiz, 2 hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzia landu den edo ez jakiteko eta 2 elkarbizitzako kompetentzia landu den edo ez jakiteko. Helburu didaktiko hauek, ebaluazio irizpideen bidez ebaluatuko dira (ikusi Eranskinak).

a) Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzia.

- Beste ikasleekin jarrera egokia izatea, elkarlanaren bidez, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko errespetua izateko.
- Ikasle berriak hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izatea, jarduera ludikoen bitartez, hizkuntza berrira murgiltzeko.

b) Elkarbizitzarako kompetentzia

- Egoera motorretan aktiboki parte hartzea, aldez aurretik ezartzen diren arauak onartuz, helburu komuna lortzeko.
- Jardueren bidez, taldekideekin hitz egitea, bakoitzaren lana adosteko.

3.4. Edukiak

Edukiei dagokionez, hurrengoak jorratuko dira:

a) Jarrerazkoak

- Parte hartze aktiboa
- Kideekiko eta arauetikiko errespetua
- Elkarlana

b) Kontzeptualak

- Talde- kohesioa: talde izatearen sentimendua
- Oinarrizko kontzeptu berriak

c) Prozedurazkoak

- Komunikazio-estrategiak eta elkarrekintza-estrategiak
- Gatazken aurreko konponbideak (estrategia ezberdinak gatazka kudeatzeko)

3.5. Irizpide metodologikoa

Proposamen honetan erabiliko den metodologia didaktikoa da. Espainian indarrean dagoen hezkuntza-araudiak honela definitzen du metodologia didaktikoa: irakasleek kontzienteki eta gogoeta eginez antolatu eta planifikatutako estrategia, prozedura eta ekintzen multzoa, ikasleen ikaskuntza eta planteatutako helburuak lortzea ahalbidetzeko (BOE, 2014).

3.6. Jarduerak

Esku hartzearekin lortu nahi ditudan helburuak bete daitezzen, 5 jarduera proposatuko ditut. Jardueretan, jardueraren izenburua, jardueran erabiliko den materiala, iraupena, jarduera bakoitzarekin lortu nahi dena eta jardueraren azalpena azalduko dut. Jarduerak ez daude zailtasunaren arabera antolatuz, baizik eta denboraren arabera, hau da, ikaslea ikastetxera iristen denetik, lehenengo egunak pasa arte.

Jardueren sekuentzia:

1. jarduera: Kartelak sortzen
2. jarduera: Collage
3. jarduera: Zuhaitz genealogikoa
4. jarduera: Bingoa
5. jarduera: Liburu bidaiagarria

1. jarduera	
Izena: Kartelak sortzen	
Materiala: Artaziak Margoak Orri zuriak Kola	Iraupena: 3 ordu
<u>Helburuak</u> Ikasleek gelan erabiltzen diren materialak, arauak edo errutinak modu bisualean ikastea Ikasleak talde lanean aritzea	

Ikasleek kartelak egingo dituzte ikasle etorkinarekin batera eta kartel horietan gelan dauden oinarrizko gauzak adieraziko dituzte, hala nola, arbela, aulkia edo ordenagailua. Horrela, ikasle berriak modu bisual batean gelan erabiltzen den oinarrizko materiala ikasiko du. Honetaz gain, gelan errespetatu behar diren arauak edo egiten diren errutinak ere adieraz daitezke.



2. jarduera

Izena: Collage

Materiala: Argazkiak
Artaziak
Kola
Kartulinak

Iraupena: Ikasleek behar duten denbora

Helburuak

Esperientziak partekatzea

Ikasleen komunikazioa sustatzea

Ikasleek beste ikuspuntu desberdinak ezagutzea

Ikasle bakoitzak bere kulturaren, herrialdearen... ezaugarriak eta gertaerak deskribatzen dituzten irudiak, argazkiak, egunkari edo aldizkari zatiak ekarriko ditu etxetik:

- Jaioterria: irudiak, mapa, etab.
- Maskotak
- Zaletasunak, janaria, kirolak, etab.
- Non bizi izan diren edo zer bisitatu duten
- Nabarmendu nahi duten edozein alderdi

Beharrezko ebakinak eskolara ekarri ondoren, ikasle bakoitzak kartoi mehe batean itsatsiko ditu collagea berak nahi duen erara apaintzeko. Gainera, hitzez edo marrazkiz apaindu ahal izango dute. Azkenik, ikasleek beren collagea azaldu eta azaldu beharko dute, beren buruari buruz eta, batez ere, ikaskide guztiarekin partekatu nahi duten guztiari buruz hitz eginez.



3. jarduera

Izena: Zuhaitz genealogikoa

Materiala: Argazkiak
 Artaziak
 Kola
 Kartulinak

Iraupena: Ikasleek behar duten denbora

Helburuak

Ikasleak beraien sustraiak eta familiaren historia ezagutzea
 Ikasleek familiaren inguruko hiztegia ezagutzea

Ikasleek beren arbaso guztien informazioa eta argazkiak lortu beharko dituzte. Ikasleek bere arbasoei buruzko beharrezko informazioa eta argazkiak eskuratu ondoren, zuhaitz genealogikoa sortuko dituzte. Nahi bezala apaindu ahal izango dute, baldin eta familia-harremanak argi eta garbi geratzen badira.



4. jarduera

Izena: Bingoa


Materiala: Kartoiak
Arkatzak

Iraupena: Ikasturte osoa

Helburuak

Ikasleek hizkuntza berria ezagutzea modu ludiko batean


Ikasleek bingoa jolastuko dute modu ludiko baten bidez, hiztegi berria ezagutzeko. Horretarako, irakasleak kartoiak prestatuko ditu, berak nahi duenaren inguruan, esate baterako, eguraldiaren inguruan, irudian ikusten den bezala. Hau eginda, ikasle bakoitzari edo bi ikasleri kartoi bat emango zaio eta denek kartoi bat dutenean, irakasleak gaiaren inguruko hiztegia aipatzen hasiko da. Ikasleek, orduan, irakasleak aipatzen dituen hitzak entzun eta beraien kartoiari



<p>dauden edo ez konturatu beharko dira. Kartoian badaude, ezabatzen joan beharko dira, horrela, kartoian dagoen guztia ezabatu arte. Kartoian dagoen guztia ezabatzen duen lehenengoak bingo esan beharko du eta irabazlea izango da.</p>	
--	--

<p>5. jarduera</p>	
<p>Izena: Liburu bidaiagarria</p>	
<p>Materiala: Liburua</p>	<p>Iraupena: 20 aste</p>
<p><u>Helburuak</u> Ikasleen komunikazioa sustatzea Ikasleak hizkuntzara murgiltzea Ikasleek ohitura edo esperientzia desberdinak ezagutzea Ikasleek helburu komun bat izatea Gurasoen parte hartzea sustatzea</p>	

Ikasleek liburu bat sortu beharko dute. Horretarako, astero, ikasle desberdin batek liburua etxera eraman beharko dute eta bertan, bizi izan duen esperientziaren batidatzi beharko dute, marrazkiekin osatuz. Ondoren, gelara eraman eta egindakoa beste ikasleei azaldu beharko die.



3.7. Ebaluazioa

Noiz?

Ebaluaketa jarraia izango da. Hasierako ebaluazioa burutzeko, esku hartzea hastean ikasleari galdetuko zaio zeintzuk diren bere jakintzak hizkuntzaren inguruan. Prozesuaren ebaluazioa ere egingo da eta hau jarduera bakoitzaren bukaeran burutuko da bere burua ebaluatuz eta honen inguruko iritzia emanaz. Azken ebaluazioa ikaslearekin egingo da azkenengo egunean eta ikasleak jarduerak ebaluatzeko eta hasieran ezarritako helburuak lortu dituen ebaluatzeko aukera izango du, ahoz.

Nork?

Irakasleak heteroebaluazioa egingo du, hau da, ikaslearen garapena ebaluatuko du lorpenen jarraipenen orriaren bidez. Ikasleak, berriz, autoebaluazioa egingo du jarduera guztiak amaitzean.

Nola?

Irakasleak lorpenen jarraipenen orriaren bitartez ebaluatuko du ikaslea. Jardueren hasieran eta jarduera bakoitzaren bukaeran egingo diren ebaluazioak, berriz, ahoz burutuko dira.

3.8. Emaitzak

Gaurko egoera dela eta, ezin izan dut proposamen didaktikoa aurrera eraman eta beraz, ezin izan ditut emaitzak bildu. Hala ere, proposamen didaktiko honek izan ditzakeen ondorioak azaltzen saiatuko naiz, hau da, sekuentzia didaktiko hau burutu eta gero nik espero dudana. Esan beharra dago, ikasle bakoitza desberdina dela eta bakoitzak bere testuingurua eta ezaugarriak dituela. Hori dela eta, sekuentzia didaktikoak modu desberdinean eragingo du ikasle bakoitzean.

Hau esanda, sekuentzia didaktikoa, aurretik aipatu den bezala, ikasle berriak hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izateko eta lehenengo hitzak ikasteko prestatuta dago. Horretaz gain, ikaslearen integrazioa ere bilatu nahi da, izan ere, ikaslea beste leku batetik dator eta garrantzitsua da ikastetxean eroso sentitzea.

Helburuak aipatukoak izanda, nik uste dut guztiak modu batean edo bestean betetzen direla. Egia da, jarduera batzuekin helburu zehatz batzuk bilatzen direla eta, agian, ez direla bilatu nahi diren helburu guztiak betetzen baina horregatik, 4 jarduera planteatzen dira, guztiak ahal diren heinean bete daitezten.

Lehenengo jardueran, ikasleek taldeka lan egitea lortzen da eta horretaz gain, ikasle berriak hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua modu bisualean izatea lortzen du. Gainera, ikasle berriak taldearen parte sentitzen dela esango nuke, izan ere, beste ikasleekin lan egiten du eta beste ikasleek nola laguntzen dioten ere hautematen du. Hau laugarren jarduerarekin lotu daiteke, izan ere, jarduera horretan hiztegia ikasten da modu ludiko batean nahiz eta talde lanik ez egon. Bigarren jardueran, berriz, ez dagoela talde lan handirik esan daiteke baina ikasle berriak gelan beste kultura batzuk daudela ikus dezake eta horrek bere integrazioan lagungarria izan daiteke. Hirugarren jardueran ere ez dago talde lan handirik baina ikasle berriak hizkuntzaren oinarrizko edukiekin kontaktu zuzena izango du, izan ere, familiaren inguruko terminoekin lan egingo du. Bukatzeko, azkenengo jarduerarekin, taldeko kide guztiak taldearen parte sentiaraztea bilatzen da eta horretaz gain, idaztera eta irakurtzera modu ludiko baten gonbidatzen zaie.

Denboraren aldetik, zalantza dezente ditut. Hau askotan gertatzen den arazo bat da, izan ere, esku hartze bat proposatzen denean, hasieran planteatutakoak aldaketak izan behar ditu. Kasu honetan, hori gerta daitekeela uste dut. Jarduerak nahiko konplexuak dira eta horrek askotan aurretik pentsatutakoa alda dezake. Gainera, jarduera batzuetan, etxeko parte hartzea ere sustatzen da eta horrek arazoak sor ditzake, izan ere, askotan, etxetik ez da nahi den feedback-a jasotzen.

Bukatzeko, zalantzak ere ditut beste ikasleen jarrerarekin. Hau da, ikasleei aurretik azaldu behar zaie ikasle berri bat etorriko dela eta taldean integratzen lagundu behar zaiola. Hala ere, ez dakit nolako jarrera izan dezaketen ikasle berriarekiko nahiz eta ondo azaldu aurretik aipatu dudana.

Hau guztia esanda, aurretik aipatu dudana bezala, bi helburu nagusiak modu egoki batean lor daitezkeela esango nuke, hau da, hizkuntza berriarekin lehenengo kontaktua izatea, kasu honetan euskararekin eta ikasle berria ikastetxean eta gelan modu egoki batean integratzea.

4. ONDORIOAK

Lan honetan hizkuntza bat ikasteen eragiten duten faktoreak aurkeztu dira. Horretarako, hasieran hizkuntzen eta hizkuntzen garrantziaz azaldu da eta ondoren, faktoreak modu sakonago batean azaldu dira. Honen bidez, ondorioztatzen da hizkuntzek gaur egungo gizarte globalizatuan ezinbesteko garrantzia dutela lanerako, beste kultura batzuk ezagutzeko edo bidaiatzeko.

Honetaz gain, faktoreen inguruan argi izan behar da pertsona bakoitzak bere ezaugarri desberdinak dituela eta horren ondorioz, pertsona bakoitzak erritmo desberdin batean ikasiko duela hizkuntza bat. Faktoreen artean, azpimarratzekoa da bakoitzak bizi duen testuingurua, izan ere, honek eragin zuzena du ikaskuntzan.

Egoera hau edozein irakasleri gerta dakiokenez, esku hartze bat planteatu da errealitatera aplikatzeko. Bertan azaltzen diren jarduerak ikasle berriak hizkuntzarekin lehenengo kontaktua izateko eta egokitzen zaion taldean hobeto integra dadin planteatuta daude. Batzuk beste batzuk baino konplexuagoak izan daitezke segun eta zein izan daitekeen eskolaren egoera, baina nik esango nuke eskola ia guztietan aplika daitekeen esku hartze bat dela. Nire ustez, kulturen arteko aniztasuna handia denean aplikatzeko egokiagoa da. Jarduera hauetan, ikasle berriak hizkuntza berriarekin gertutasuna izango du baina garrantzitsua da ikasle guztiek aktiboki parte hartzea. Kulturen arteko harremanetik aberastu

behar dira, besteen sentimendu eta bizipenekin enpatia izateko, errespetuaren eta tolerantziaren oinarriak ezartzeko.

Laburbilduz, lan honek material didaktikoa sortzeko lagungarria izatea bilatzen du, bertan oinarri teoriko bat dagoelako eta ondoren, proposamen didaktiko bat planteatzen delako. Egia da, proposatutako sekuentzia didaktikoak ahuleziak izango dituela baina emandakoa oinarri bezala har daiteke, izan ere, testuingurua desberdina izan daiteke egoera bakoitzean.

5. BIBLIOGRAFIA

- 10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa. (EHAA, 160 zenb., 1982ko abenduaren 16a, 3138-3146 or.). Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1982/12/8201955a.pdf>
- 138/1983 DEKRETUA, uztailaren 11koa, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen duena. (EHAA, 108 zenb., 1983ko uztailaren 19a, 2471-2475 or.). Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1983/07/8301433a.pdf>
- 235/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Erkidegoan ezartzen duena. (EHAA, 9 zenb., 2016ko urtarrilaren 15a, 49-268 or.). Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>
- Abello Camacho, S. M. eta Ramos de la Hoz, R. A. (2009). *Lenguaje y musicalidad: Su relación y sus implicaciones en la adquisición de una segunda lengua*. (Tesia). Departamento de Lenguas Modernas. Pontificia Universidad Javeriana.
- Agra, C. (2018). Cómo funciona el cerebro de un niño cuando aprende un segundo idioma. *Nueces y neuronas*. <http://www.nuecesyneuronas.com/como-funciona-el-cerebro-de-un-nino-cuando-aprende-un-segundo-idioma/>
- Alarcón, L. (2002). Bilingüismo y adquisición de segundas lenguas: inmersión, sumersión y enseñanza de lenguas extranjeras. In *Memorias del Simposio La Investigación y el Desarrollo Tecnológico en Querétaro. Resúmenes y Trabajos Ganadores* (124-133 or.). Querétaro. https://luisalarcon.weebly.com/uploads/2/7/8/4/2784997/bilinguismo_y_adquisicin_de_segundas_lenguas-_inmersin_sumersin_y_enseanza_de_lenguas_extranjeras.pdf
- Anderson, A. (2011). La importancia de aprender una segunda lengua. Hemen eskuragarri: https://d1wqtxts1xzle7.cloudfront.net/53024936/nuestros_ensayos_-_la_importancia_de_aprender_una_segunda_lengua_1.pdf?1494114843=&response-content-disposition=inline%3B+filename%3DLa_importancia_de_aprender_una_segunda_lengua_1.pdf&Expires=1623965414&Signature=ei2EqT775fWK7ZPy5z4tctFweQVO14wHy8zT5rt31I0199R2XeSiTOHmONhnSAE8ikmng6H1BUuX3oxfKtJw63Lley4k7MtABzg8jBRIdRbCdbxa5cFX~Jv8wUveZjL0nkiqPqq4npAcO-SV0Gmj-fJPKBP9fK8ejFdRkUhomW2v8zsBoAYPn3VCD5UxpOP-S8klkhj5IBcnv0WpskVASf7bHJrkPwEe3h6TEIHbHeF1H3nAe6OQyxG6Uv wzCsT50nd185NDMxjnllncoTcxtjilGFpu8B8az3G0SGC01PEwI9vUtmRzXs3kc5Oz04WvuoVXzY7RvICn2jLBBouYg_&Key-Pair-Id=APKAJLOHF5GGSLRBV4ZA

- Banfi, C. (2009). Los idiomas en la educación [Abstract]. *Universidad De Buenos Aires*, Hemen eskuragarri: https://www.researchgate.net/publication/290434785_Los_idiomas_en_la_educacion
- Bergfelt, A. (2008). *Las actitudes en el aprendizaje de una segunda lengua*. (Gradu Amaierako Lana). Karlstads Universitet, Karlstad. Hemen eskuragarri: <http://kau.diva-portal.org/smash/get/diva2:24525/FULLTEXT01>
- Burden, R. L. eta Williams, M. (1997). *Psychology for Language Teachers: a Social Constructivist Approach*. Cambridge University Press.
- Calatrava, M. D. C. R. (2009). El aprendizaje de una Lengua Extranjera a distintas edades. *Espiral. Cuadernos del profesorado*, 2(3), 11.
- Campo, L. A. (2009). Características del desarrollo cognitivo y del lenguaje en niños de edad preescolar. *Psicogente*, 12(22), 341-351.
- Carmona, A. B. (2011). Factores afectivos en el aprendizaje de idiomas: La actitud. *Temas Para La Educación*, 16. <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd8637.pdf>
- Choi, A. (2018). Desigualdades socioeconómicas y rendimiento académico en España. *El Observatorio Social, Fundación "la Caixa"*. <https://observatoriosociallacaixa.org/-/desigualdades-socioeconomicas-y-rendimiento-academico>
- Contreras, D., Estrada, M., Parra, R. eta Venegas, G. (2013). *Los factores nivel sociocultural y autoestima, y su incidencia en la producción oral del idioma Inglés en estudiantes de segundo año medio de siete establecimientos en la comuna de Chillán* (Gradu Amaierako Lana). Universidad del Bio-Bio, Chillán. Hemen eskuragarri: http://repobib.ubiobio.cl/jspui/bitstream/123456789/284/3/Contreras_Canto_David.pdf
- D'Andrea, M., Garré, A. eta Rodriguez, M. (2012). Una lengua extranjera, ¿sólo una herramienta para la comunicación?. *Invenio: Revista de investigación*, 15(28), 11-17.
- Del Carmen, J., Garcia- Santillán eta Escalera, E. (2016). Variables que influyen sobre el aprendizaje del inglés como segunda lengua. *Revista Internacional De Lenguas Extranjeras*, 5, 79-94.
- Eusko Jaurlaritz (2014). *Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. Hemendik eskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_marco/eu_def/adjuntos/Heziberri_marco_modelo_educativo_pedagogico_e.pdf
- Fernández- Ulloa, T. (2003). *La educación bilingüe en el país vasco: Problemas y retos*. California State University.
- Gooch, D., Thompson, P., Nash, H. M., Snowling, M. J. eta Hulme, C. (2016). The development of executive function and language skills in the early school years. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 57(2), 180-187.

- Gorostegui, M. E eta Dörr, A. (2009). El peso de los factores culturales en los resultados de la aplicación de un test norteamericano de evaluación de autoestima a un grupo de adolescentes chilenos. *Castalia*, 16, 65-85.
- Guerrero Rodríguez, J. eta Cubides Franco, J. I. (2019). *Factores socioeconómicos que influyen en el aprendizaje del inglés de los estudiantes de la educación media 2016-2018* (Gradu Amaierako Lana). Universidad de La Salle. Hemen eskuragarri: <https://ciencia.lasalle.edu.co/cgi/viewcontent.cgi?article=1919&context=economia>
- Intxausti, N., Etxeberria, F. eta Joaristi, L. (2010). EAEko familia etorkinen aukerak lehen hezkuntzan: Eskola eta hizkuntza eredua. *Tantak*, 22, 43-65.
- Laka, I. (2012). *More than one language in the brain*. In C. Boeckx. M.C. Horno eta J.L. Mendibil (ed.). *Introduction to the Biological Study of Language* (184-207 or.). Cambridge Scholars Publishing.
- Manga, A. M. (2008). Lengua segunda (L2) Lengua extranjera (LE): Factores e incidencias de enseñanza/aprendizaje. *Tonos digital*, 16. <http://www.tonosdigital.com/ojs/index.php/tonos/article/view/249/190>
- Mariela, S., Francisca, I. eta Gómez, R. (2015). *Importancia del manejo de una segunda lengua*. Universidad Pedagógica Nacional Francisco Morazán.
- Mena, T. (2013). *Factores afectivos que inciden en el aprendizaje de una lengua extranjera: La motivación*. (Master Amaierako Lana). Universidad de Oviedo. Hemen eskuragarri: https://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/handle/10651/18314/TFM_%20MenaBenet.pdf;jsessionid=5DF5C0F9E507483C5D78E427D33ED216?sequence=6
- Montero, R. L., Chaves, M. J. Q., eta Alvarado, J. S. (2010). Factores Sociales en el Aprendizaje de un Segundo Idioma: El Caso de la Sede del Pacífico de la Universidad de Costa Rica. *Revista Lenguas Modernas*, 1-18.
- Muñoz Lahoz, C. (2001). Factores escolares e individuales en el aprendizaje formal de un idioma extranjero. *ELUA. Estudios de Lingüística*, 249-270.
- Murillo, H. A. (2020). Factores cognitivos que influyen en la adquisición del español como segunda lengua. *Revista Electrónica De Conocimientos, Saberes Y Prácticas*, 3(1), 159- 169.
- Orden ECD/686/2014, de 23 de abril, por la que se establece el currículo de la Educación Primaria para el ámbito de gestión del Ministerio de Educación, Cultura y deporte y se regula su implantación, así como la evaluación y determinados aspectos organizativos de la etapa. (BOE, 106 zenb., 2014ko maiatzaren 1a, 33827-34369 or.). Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/o/2014/04/23/ecd686/dof/spa/pdf>
- Pishghdam, R. (2011), An application of a questionnaire of Social and Cultural Capital to English Language Learning. *Canadian of Science and Education*, 4 (3), 151-157..

- Rodríguez- Pérez, N. (2012). La motivación del profesor. un factor fundamental para la eficacia del proceso de enseñanza-aprendizaje de idiomas. *Encuentro*, 21, 126-142.
- Rubio, M. d. C. (2011). Factores que intervienen en el aprendizaje de una segunda lengua. *Innovación Y Experiencias Educativas*, 46.
- Ruiz, R. M. M. eta de Larios, J. R. (2006). Algunas consideraciones sobre el factor edad en relación con la enseñanza de las lenguas extranjeras en la escuela. *Porta Linguarum: revista internacional de didáctica de las lenguas extranjeras*, 5, 63-76.
- Sáez, F. T. (2007). Enseñar nuevas lenguas en la escuela: L1, L2, LE..., NL. *Revista de educación*, 343, 71-91.
- Sánchez, I. (2013). "Se me dan mal los idiomas" aspectos psicológicos que pueden influir en la adquisición de lenguas extranjeras. *Didáctica. Lengua Y Literatura*, 25, 275- 293.
- Sánchez-Reyes, M. S (2000). *La influencia de la edad temprana en el proceso de adquisición de la lengua extranjera*. Dpto. Filología Inglesa-Universidad de Salamanca. E. U. de Educación de Ávila.
- Santana Villegas, J. C., García-Santillán, A., eta Escalera-Chávez, M. E. (2016). Variables que influyen sobre el aprendizaje del inglés como segunda lengua. *Revista Internacional de Lenguas Extranjeras/International Journal of Foreign Languages*, 5, 79-94.
- SEPIE (2020). *Día europeo de las lenguas: Un impulso al aprendizaje de idiomas y la diversidad lingüística*. Ministerio de Universidades. Hemen eskuragarri: http://sepie.es/doc/comunicacion/prensa/2020/NdP_EDL_2020.pdf
- Serra, J. M. (2002). Immigrazioa, hezkuntza eta hizkuntza aniztasuna. *Hik Hasi, Etorkinak gure eskolan 9. Monografikoa*, 18-23.
- Ustariz, E. A., eta Duñabeitia, J. A. (2016). Elebitasuna, bi hizkuntza hitz egitea baino gehiago. *Hizpide: euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria*, 89, 1-14.
- Vallejo, N. H. S. (2014). Programa de autoestima y rendimiento escolar en educación primaria. *UCV-HACER: Revista de Investigación y Cultura*, 3(2), 63-69.
- Villegas, J. D. C. S., García-Santillán, A., & Escalera-Chávez, M. E. (2016). Variables que influyen sobre el aprendizaje del inglés como segunda lengua. *Revista Internacional de Lenguas Extranjeras/International Journal of Foreign Languages*, 5, 79-94.

ERANSKINAK

EBALUAZIOA																	
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.	15.	16.	17.
Beste ikasleekin eta hizkuntza berriarekin harremantzeko duen alde zuzeneko jarrera positiboa du.																	
Jardueren arauak errespetatzen dituzte hauek modu aktiboan burutzean																	
Hizkuntza berrira ondo egokitzen da.																	
Jardueren arauak errespetatzen dituzte hauek modu aktiboan burutzean																	
Estrategiak proposatzen dituzte egoera zehatzetan.																	
Ikasleen ekarpenak kontuan hartzen dituzte bere burua beharretara egokituz																	
H. B. = Hobetu Beharra / N = Nahikoa / O = Ongi / O. O. = Oso Ongi / B = Bikain																	